

ALEN (804m)



Irudian erdi erdian dagoen piramidea Alen tontorra da.

Sopuertako auzo batek ere izen bera dauka. Garai batean bertan meategiak egon ziren. Inguruan burdina ateratzen zen eta Castrora garraiatzen zen. Gero Ingalaterra eta Holandara eramaten zen.

Castrotik zetorren trenetik materiala jaisten zuten. Gaur egun trenbide horretako aztarnak daude.

Ingurua oso lasaia da, mendian jende gutxi ikus daiteke. Baliteke asteburuetan norbait ikustea, baina orokorrean jende gutxi ibiltzen da.

HASIERAKO PUNTURA NOLA HELDU:

Ilsoko portuan aparkatu behar dugu. Batzuk "Las Muñecas" portua esaten diote. Sopuertatik zein Castrotik igo gaitzke.

INFORMAZIO TEKNIKOAK:

- **Luzera:** 10,80 km.
- **Iraupena:** 4 ordu.
- **Desnibel positiboa:** 560 m.
- **Zailtasun teknikoa:** baxua.
- **Zailtasun fisikoa:** erdikoa.

IBILBIDEAREN IRUDIAK:



IBILBIDE ORRIA

Irteera: Alen	Mendilerroa:	Data:
----------------------	---------------------	--------------

	Lekua	Norabidea	Deskribapena
1	Ilso	N270E	Erdiko bidetik gora egin. Pistak baztertu.
2	Bidegurutzea	N250E	Erdiko bidetik jarraitu.
3	Bidegurutzea	N280E	Gandorretik jarraituz pistara helduko gara. Pista ez zapaldu eta bide estutik jarraitu.
4	Bidegurutzea	N150E	Ezkerreko bidea hartu. Bidea jarraituz tontortxo batera helduko gara.
5	Bidegurutzea	N170E	Hortik jaitsi eta pistara helduko gara.
6	Bidegurutzea	N240E	Pista utzi eta zuzen aldapa gogorretik gora egin..
7	Goiko landa	N170E	Landa zabalera heltzean ezkerrean gandorretik tontorrera helduko gara.
8	Tontorra		Etorri garen lekutik bueltatu. Nahi izatekotan beheko harrizko pistatik parkingera heldu ahal gara.
9			
10			